

EKINTZEN BERRIAK

Maiatzaren
4tik
aurrera

AZTERTU ETXEAN



Dibertitzeko eta ondo pasatzeko **8 asteko** iraupena duen **joko online** bat da eta, aldi berean, gure ingurune naturalari buruz gehiago ikasteko pentsaturikoa. Horrez gain, hezkuntza-baliabide gisa ere erabil daiteke.

Gomendaturiko adina: 11 urtetik aurrera.

[Jolastu](#)

Maiatzak
9

Ekoetxea Txingudi

HEGAZI MIGRATZAILEEN EGUNA



Hegaztien eguna dela eta, Aztertu **Txingudiko ekoetxera** gerturatuko da!

Aztertuko programa ezagutzeko aukera izango duzue eta, gainera, gaztetxoentzako tailer batzuk ere izango ditu.

[Info gehiago](#)

Maiatzak
17

Plentziako hondartzan

EKINAREN EGUNA



Ingurumen sentzibilizazio ekintza

Hondartzan zehar parte hartzaileek fitxa bat bete beharko dute ingurumen-arloko erronka eta asmakizunekin.

4-12 urte bitarteko umeekin egiteko bereziki gomendagarria.

*Izena ematea gomendagarria da **11:00 - 13:00**

[Info gehiago](#)

Maiatzak
18-24

EKINAREN ASTEA



Maiatzaren 22a (**Nazioarteko Aniztasun Biologikoaren Eguna**) barne hartzen duen astean, ingurumenaren alde ekiteko aukera paregabea dugu. Ikastetxe, elkarte, familia edo talde izan... denok zaudete gonbidatuta! Astebete izango duzue zuen **ekintzak** martxan jartzeko. Animatuko zara?

[Info gehiago](#)

Bermeo

Maiatzak
22-23
24

AZTERTU ARRAIN AZOKAN



Aurten Aztertu programak **Bermeoko arrain azokan** egongo da. Hurbildu zaitetz gure info puntura ditugun ekintzen guztien berri izateko. Tailerrak, opariak eta zozketak egongo dira...

[Info gehiago](#)

Amorebieta-Etxano

Maiatzak
30-7
Ekainak

HERRIZ HERRI AMOREBIETA-ETXANO



7 egunez **Amorebieta-Etxanon** izango gara ingurumenarekin loturiko hainbat ekintza egiteko, hala nola, ibaian laginketa bat familiekin, tailer ekoaktiboa eta zabor-bilketa. Gerturatu zaitetz maiatzaren 30ean gure informazio-puntura eta parte hartu gure ekintzetan!

[Info gehiago](#)

Idatzi iezaguzu izena emateko!

Irun - Ficoba



Ekainak
5-7

BIOTERRA



Aztertu programa **Irunen** ospatuko den **Bioterran** egongo da. Bertan gure ekintzak gertutik ezagutzeko aukera izango duzue eta, horrez gain, tailerrak eta hainbat ekintza egingo ditugu.

[Info gehiago](#)

Ekoetxea Azpeitia



Ekainak
7

INGURUMENAREN EGUNA



Ingurumena babesteko beharra gogorarazteko Ekainaren 7an Aztertu programa **Azpeitiako ekoetxean** izango da. Hurbildu zaituz gure programa ezagutzera!

[Info gehiago](#)

La arena hondartza - Zierbena



Ekainak
13

MISIO URDINA



La Arena hondartzara hurbilduko gara gure kostaldearen egoera ekologikoa ezagutzera eta bertako animalia eta landareak behatzera. Gainera, ordu batez **gymkana** bat egingo dugu, animatu parte-hartzera!

[Info gehiago](#)

Aiaraldea



Ekainak
20-26

HERRIZ HERRI AIARALDEA



Berriz ere Aztertu **Aiaraldeako** hainbat herritara hurbilduko da ingurumenarekiko kontzientzia piztera! Oraingoan hainbat ekintza izango ditugu, adibidez familiekin egingo den ibai-laginketa eta Gymkana. Gerturatu zaituz Ekainaren 20an informazio-puntura!

[Info gehiago](#)

Urkiolako parketxea



Ekainak
28

NATURA IRTEERA FAMILIEKIN



Hurbildu zaituz **Urkiolako Parke Naturalera** naturaz goatzera eta gure inguruko basoak ezagutzera. Gainera, Aztertuko **NATURA materiala** erabiltzeko aukera ere izango duzue!

[Info gehiago](#)

Azaroaren
30
arte

MARRAZKI / ARGAZKI LEIHAKETA



Gure naturako marrazki edo argazki bat partekatu gurekin!

Aztertuko natura eta artea batzen ditu: zure inguruko kostaldea marraztu ezazu Azterkosta kanpainarako eta **azaroaren 30a baino lehen bidali iezaguzu**. 3 sari kategoria daude!

Bidali ezazu zure lana e-mail zein postaz!

[Info gehiago](#)

Idatzi iezaguzu izena emateko!

ingurumen
hezkuntza



747 42 99 33



aztertu@euskadi.eus



@aztertuprograma



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO